

OCW

## IKASTEKO MATERIALA: 1.GAIA

### FAMILIA-ORIENTAZIOA



#### 1.guia. Familia-orientazioaren sarrera.

- 1.1. Familia-orientazioaren definizioa, mailak, eskuhartze-ereduak eta lan-tresnak
- 1.2. Elkarateak, aldizkariak eta webgune garrantzitsuak
- 1.3. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZAK HAUEK IZANGO DIRA:

1. Familia-orientazioak erabiltzen diren definizioak, orientazio-mailak eta esku-hartzeko moduak ezagutuko dira
2. Familia-orientazioaren elkarateak, webguneak eta aldizkariak zein diren jakingo da

## 1.gaila. Familia-orientazioaren sarrera.

### 1.1. Familia-orientazioaren definizioa, mailak, eskuhartze-ereduak eta lan-tresnak

Jarraian, familiaren eta familia-orientazioaren definizioak, orientatzeko dauden mailak, eskuhartzeko orduan erabiltzen diren ereduak eta familiekin aritzeko zenbait lan-tresnak ezagutuko ditugu.

**Familia bat**, Eusko Jaurilaritza-ren 2008ko Familiari Laguntzeko Legearen [1] arabera hauxe da:

Familia da bi pertsonak edo gehiagok osaturiko bizikidetzataldea, pertsona horiek ezkontzat edo horren antzeko harreman batez loturik daudenean, edo elkarren artean guraso eta seme-alaba direnean edo beste edozein ahaidetasun dutenean. Tutoretzaren eta harremanaren kasuan, guraso eta seme-alaben arteko harremanaren parekotzat hartu ahalko dira horiek, dena delako laguntzaren izaeraren arabera eta dagokion araudiaren arabera. (31931. orria)

**Familia-orientazioa** definitu aurretik, orientazioa definituko dugu. Orientatzea, gidatzea da Rodríguez-en [2] arabera, ingelesez *guidance* izeneko kontzeptua. Gidatzeak edo orientazioak, lau aplikazio eremu nagusi ditu Castillo-ren [3] arabera: Eskolako orientazioa edo orientazio akademikoa, orientazio profesionala edo bokazionala, orientazio pertsonala eta familia-orientazioa. Jarraian, zenbait egilek ematen duten familia-orientazioaren definizioak emango dira. Familia-orientazioa, Sánchez-en [4] arabera laguntza-prozesu bat da, zeinen bidez familiaren hezkuntza-funtzioa hobetzen den. Romero-ren [5] arabera, familia-orientazioa zera litzateke: Familiari eskaintzen zaion laguntza, zenbait tekniken bidez, helburua delarik, bizitza zikloan zehar bere kideek izan ditzaketen zailtasunei aurrehartzen edo aurre egiten laguntzeko. Bestalde, Ríos-en [6] definizioaren arabera, familia-orientazioa teknika-multzo bat da, helburua delarik familia-sistema batean dauden kideen arteko binkuluak indartzea. Binkulu hauek sanoak, eraginkorrak eta kide bakoitzaren aurrerapen personala ahalbidetzeko modukoak izango dira.

Ríos egilearen [7] arabera hiru **maila** daude familia-orientazioan. Jarraian ikusiko ditugu labor maila bakoitzaren helburuak.

Lehenengo maila (Hezkuntza maila). Orientazio hau, gurasoei eta seme-alabei formakuntza sistematizatua eta planifikatua ematea izaten da, agertu daitezkeen arazoei aurre-hartzeko. Honela, garapenean zehar ematen diren garaiak azaltzen dira, komunikazioa nola ematen den familia barruan, eta abar. Arazoak agertu baino lehen aurrehartu nahi da eta familia guztiei zuzendutakoak izaten dira ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, etab. Orientazio mota hau guraso-eskolen bidez, udalen bidez, etengabeko hezkuntzaren bidez edota gabinetete pribatuen bidez eman daiteke. Lehen mailako familia-orientazioaren adibideak hauexek izan daitezke: 'Aula familiar' elkartearen bidez ematen diren ikastaroak, Espainia mailako guraso elkartearen konfederazioaren (CEAPA) bidez ematen den *online*-eko orientazioa, HIRU

Eusko Jaurlaritzaren etengabeko hezkuntzaren bidez ematen diren ikastaro irekiak, udalen bidez ematen diren ikastaroak eta tailerrak, etab.

Bigarren maila (Asesoramendu maila). Funtzio konpensatzailea du. Funtzionamendurako irizpideak ematen dira bereziki familietan desajusteak daudenean. Elkarrekintza-arauak berriro planteatzen dira. Orientazio mota hau gabinetean bidez edo gurasoentzako zerbitzuen bidez ematen da nagusiki. Batzuetan, ondoren familia terapiara gonbidatzen da.

Hirugarren maila (Tratamendu terapeutikoaren maila). Terapia egiten da familia osoarekin edo soilik bikotearekin, etab. Maila honetan, badago familiekin terapia egiten duten profesionalen erregistro bat, Registro Nacional de Psicoterapeutas deitua [8].

**Eredu** hitza modu desberdinetan definitu dute egileek, hala nola, Bisquerra-entzat, [9] ereduak, orientazio-prozesuan gidatzeko baliagarriak diren funtsezko estrategiak dira. Egile berak ekintzarako gidak edo ekintzarako prozedura eta prozesu bezala definitu du. Lledó egilearentzat [10] ereduak, orientazioaren errealitatea sinplifikatzeko sortutako konstruktua da eta esku-hartze eta estrategia zehatzen bidez, hain konplexua den praktika orientatzailea samurragoa egiten du. Máiquez & Capote-n zitatzen den Solé-ren arabera [11], ereduak, esku-hartze prozesuaren diseinuen, esturturen edo osagaien deskribapena da.

Batetik, familia-orientazioan dauden orientatzeko ereduak hezkuntza-orientazioaren berdinak dira Cervel-en [12] arabera, hau da, *counseling* ereduak, zerbitzuen ereduak, zerbitzuen ereduak programen bidez, programa-ereduak eta eredu teknologikoak. Bestetik, Máiquez & Capote egileek [11] familien esku-hartzean zentratutako, hiru eredu azpimarratzen dituzte: eredu klinikoak edo *counseling* ereduak, hezkuntza-ereduak eta eredu komunitarioak. Era berean, gogoan izan behar da, familiekin esku-hartzea disziplinarterko lana dela: talde multiprofesionalekin jarduten da eta horrelako talde batean egoteak profesionalen arteko antolaketa-kultura onartzea suposatzen du. Talde honetan, kide bakoitzak bere espezialitateari dagozkion ezagutzak eskaintzen ditu eta gainera, koordinatutako eta ondo integratutako ekintzak burutzen ditu talde barruan. Laburpen bat eginik, jarraian, azalduko dira, *counseling* ereduak, eredu hezitzaileak, eredu komunitarioak eta eredu teknologikoak.

### Counseling ereduak

*Counseling* ereduak, eredu klinikoak edota aholkularitzaren eredu bezala ere ezagutzen dira. Grañeras & Parras-en [13] arabera *counseling* -aren lehentasunezko helburua, subjektuaren behar pertsonalei, hezkuntza alorrekoiei zein sozio-profesionalei erantzutea da eta laguntzeko harreman horretan funtsezko teknika elkarrizketan oinarritzen da. Elkarrizketaren teknika, era berean, zenbait estrategiekin osatzen da, hala nola Carl Rogers-en (1902-1987) izpilu teknika, ez hitzezkoa den *feedback*-a, tratamendu irekia edo galderen itxiera, denboraren banaketa edo puntu sendoen lana. Cervel-ek [12] dionez, administrazio publikoetatik egiten den lanean erabiltzen da *counseling* ereduak, familiararen arloko problematika ebaluatzen eta esku-hartzen denean. Ituarte-ren [14] arabera, eredu honen bidez modu indibidualizatuan esku-hartzen da, hezkuntzaren edo terapiaren bidez; adibidez, alkoholarekin arazoak, ludopatiarekin arazoak daudenean, etab. Batzuetan, familiako beste kide batzuegana ere zabaltzen da laguntza.

Aholkularitza egiten da etxeko bisitak egiten direnean baita. Beraz, laburbilduz, Máiquez & Capote [11] arabera, eredu hau indibidualizatua da, diagnostikoan eta tratamenduan oinarrituta dago, teknika nagusia elkarrizketa da eta testuinguru bulegoa eta gizarte zerbitzuak izaten dira. Ikuspegiak daude barruan (adb. konduktista eta terapia familiar sistemikoa).

### Eredu hezitzailea

Eredu hezitzaileari dagokionez, esku-hartze hau Máiquez & Capote-ren [11] arabera, familiei hezkuntza-portaera eta trebetasunak irakasteen zentratzen da. Seme-alaben berreziketaren ere zentratu daiteke. Oro har, prozesu hezitzaile guztietaz okupatzen da, berdin dio zein testuingurutan ematen den. Orientazio teorikoaren arabera bere izaera aurrehartzekoa, optimizatzailea edo konpentsatzailea izan daiteke. Gehienbat taldeei zuzenduta egoten da. Bi korrante handi daude eredu honen barruan, mekanizista eta konstruktibista. Ikuspuntu mekanizistatik irakasten denean, arazoa diagnostikatzen da eta ondoren esku-hartzea planifikatu egiten da. Azken helburua zuzentzailea da (gaztelarazko *correctivo*) eta eredu hezitzailetik lan egiten duen profesionala, portaeran eta ikasketan dauden arazoak erresolbatzen dituen da. Aldiz, ikuspuntu konstruktibistan, garapeneko testuinguruak kontuan hartzen dira pertsona bakoitzak dituen eskemak eta pertsona bakoitzaren trebeziak potentziatzen saiatzen da. Gainera, azken ikuspuntu honetan, prozesu guztia ebaluatzen da, ez soilik azken emaitza. Azkenik, eredu hezitzaileak modalitate informatiboa izan dezake edo modalitate instruktiboa.

Rodrigo, Máiquez & Martín-en [15] dokumentuaren arabera, gurasotasunerako hezkuntza ematen dela entzuten dugunean, mota guztietako produktuak aurkitzen ditugu: Hitzaldiak, tailerrak, autolaguntza-taldeak, errezetak, orientazioak. Dokumentuaren arabera, baita, formakuntza hauetan, irakatsi behar dena hauxe da: gurasoen hezkuntza-trebeziak, kompetentzia pertsonala eta pertsonarteko kompetentzia. Gurasoek euren errola berriro pentsatzea bilatzen da eta baita, erabaki malguak hartzeko aukera izatea, beti ere euren seme-alaben egoerak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Formakuntza mota bat programen bidez buruturiko tailerrak izaten dira.

### Eredu komunitarioa

Máiquez & Capote-ren [1] arabera, eredu honek pertsonaren sistemarekin harremanean dauden beste sistemen arteko harremanak nola dauden ikusten du eta esku-hartzea bilaketak burutzean oinarritzen da. Eredu komunitarioa sistemen teoria erabiltzen da. Hauek dira eredu komunitarioaren zenbait ezaugarri:

- Bizitza-kalitatean jartzen da azpimarra eta ez bakarrik arlo negatiboetan
- Familiaren eta komunitatearen arteko harremanean jartzen da fokua eta laguntza formalak eta informalak hartzen dira kontuan
- Bi ildotan egiten da lana: Batetik, lan zuzena egiten da pertsonarekin edo komunitatearekin; bestalde, ikuskaritza-lana, administrazio-lana, irakaskuntza eta ikerketa egiten da.
- Esku-harzen duen profesionala bitartekaria izan daiteke, ahalduntzea eragiten du pertsonetan, etab.

- Eredu honekin jarduten duen profesionalak esku-hartzen duenean, erabiltzaileen beharretatik, proiektu pertsonaletatik, helburuetatik etab. ekiten dio; familian dauden balio eta gaitasunak detektatzen ditu, familiek beraien balia bideak mugitu ditzaten; familiek duten sare-soziala indartzen du eta familiaren gaitasunak handitzen ditu, familiek beraien beharrak ase ditzaten.
- Eredu honetan profesionalaren errola zeharkakoagoa da, hau da, ez ditu agian zuzenean instrukzioak ematen edo heziketa zuzen bat egiten: Bitartekari bat da, gizarte zerbitzuen eta laguntza eskatzen duen pertsona edo familiaren artean. Profesional honek aukera eta informazio ugari eskaintzen dio familiari, aukera egin dezan.

Eredu komunitarioaren bidez, hainbat zerbitzuren berri eman daiteke, hala nola, zein ludoteka dauden, zein Gazteleku dauden, zein etengabeko formakuntza egin daitekeen, mendekotasunaren inguruan zein laguntza dagoen, Lanbide-n zein aukera dauden, bitartekaritzaren zein zentro dauden, Elkarguneak zer diren eta zer egiten duten, beste erkidego batzuetan dauden *Centros de Apoyo a la Familia*-ri (CAF) buruzko argibideak, etab.

### Eredu teknologikoa

Eredu teknologikoari dagokionez, eredu honen sinonimoak dira, eredu telematikoa eta e-orientazioa. Eredu honek orientazio prozesuan inplikaturik daudenei autonomia eskaintzen die eta beste eredu batzuekin uztartuta komunitate zabalera iritsi daiteke orientatzerakoan. Grañeras & Parras-ek [13] diotenez, eredu honen hasiera 70. hamarkadan izan zen Estatu Batuetan. Egun, Espainia mailan zenbait egile aipatu ditzakegu eredu honen erreferente bezala, hala nola, Rodríguez Espinar, Bisquerra eta Pantoja. Eredu teknologikoa garatu ahal izateko badaude zenbait ekimen gaur egun gizartean. Hastapenak Europan egin izan dira, zehazki Konpetentzia Digitalaren Markoaren bidez eta egun, Irakasteko Konpetentzia Digitala zehaztuta daukagu, Instituto Nacional de Tecnologías Educativas y de Formación del Profesorado-ren (Intef) bidez (ikus <http://educalab.es/intef/digcomp/digcompteach>). Norbere diagnosis egiteko *Ikanos*-en webgunea dugu (ikus <http://test.ikanos.eus/index.php/566697>)

Eredu teknologikoaren bidez familian esku-hartu daiteke, hona hemen internet-en aurkitu daitezkeen adibide batzuk (ikus 1. Taula).

1. Taula. Eredu teknologikoaren bidez familian esku-hartzeko moduak

| ZERTARAKO?   | ADIBIDEAK  |
|--|--|
| <b>FAMILIEN AHOLKULARITZA ETA KONTSULTAK EGITEKO</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Guraso.eus (gurasoentzako informazioa): <a href="http://www.guraso.eus/">http://www.guraso.eus/</a></li> <li>- Gurasoena.org webguneak kontsultak ere artatzen ditu: <a href="http://www.gurasoena.org/eu/consultas.aspx">http://www.gurasoena.org/eu/consultas.aspx</a></li> </ul>   |
| <b>KONTZIENTZIAZIOA BURUTZEKO</b>                    | <p><i>Save the children</i> elkarteak istorio interaktiboak eskaintzen ditu:</p> <p><a href="https://www.savethechildren.es/que-pasaria">https://www.savethechildren.es/que-pasaria</a></p> <p><a href="https://www.savethechildren.es/actualidad/vuelta-al-cole-retomamos-las-actividades-socioeducativas-en-bilbao-y-vitoria-gasteiz">https://www.savethechildren.es/actualidad/vuelta-al-cole-retomamos-las-actividades-socioeducativas-en-bilbao-y-vitoria-gasteiz</a></p> |
| <b>INFORMAZIOA EMATEKO</b>                           | <p>Bilbao.eus (Bilboko Udala). Familian hezi atalean informazio asko ematen da:</p> <p><a href="http://bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&amp;cid=3000086494&amp;language=eu&amp;pageid=3000086494&amp;pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_Listado">http://bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&amp;cid=3000086494&amp;language=eu&amp;pageid=3000086494&amp;pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_Listado</a></p>   |
| <b>IRAKASKUNTZA ESKAINTZEKO</b>                      | <p><i>On-line</i>-eko formakuntza. Adibidez, Educar en positivo: <a href="http://www.educarenpositivo.es/index.php?lang=es">http://www.educarenpositivo.es/index.php?lang=es</a></p>   |

Familiekin zerbitzu espezializatuetan lan egiteko, familia hezitzaileek erabiltzen dituzten **tresnak** erakutsiko dizkizut jarraian. Adibidez, Aragoiko Gobernuak [16] protokolo bat proposatzen du eta bertan, familiekin esku-hartzerakoan egiten den lana sistematizatzeko dituzten tresnak agertzen dira. Proposatzen diren lan-tresnak dira, helburu-zerrenda (banco de objetivos), esku-hartze plana, egunerokoa eta seihilabeteroko txosten soziohezitzaileak.

Helburu-zerrendari dagokionez, txantilo honetan jartzen dira hurrekin eta familia-nukleoarekin ezartzen diren helburuak. Jarraian Aragoiko Gobernuak proposaturikotik egindako moldaketa duzue (ikus 2. Taula).

2.Taula. Helburu-zerrendaren adibide bat

| HELBURU-ZERRENDA   |                   |           |                     |
|--------------------|-------------------|-----------|---------------------|
| HAURRAK            |                   |           |                     |
| FAMILIA-NUKLEOA    |                   |           |                     |
| KOORDINATZAILEA    |                   |           |                     |
| HEZITZAILEA        |                   |           |                     |
| LEHEN ELKARRIZKETA |                   |           |                     |
| KONTAKTUEN SAREA   | Kontaktu-pertsona | Telefonoa | Korreo elektronikoa |

Esku-hartze planari dagokionez, tresna honen bidez, familiako pertsonaren arlo desberdinetako helburuak, ebaluazio-momentuak eta oharrak jasotzen dira, hala nola, arlo-sozioekonomikoan, osasunaren arloan, elikaduraren eta higienearen arloan, etxebizitzaren arloan, familiararen harremanen arloan, eskolako arloan, aisialdian, gizarte-integrazioan, arlo legalean, etab. Jarraian duzue adibide bat (ikus 3. Taula)

3.Taula. Kasu-plana, arlo sozioekonomikoan, adibide bat (zatitxo bat)

| HASERA-DATA | HELBURUAK                                       | EBALUAKETA-DATAK |   |   |   |   | BEHAKETAK |
|-------------|---|------------------|---|---|---|---|-----------|
|             |   | 1                | 2 | 3 | 4 | 5 |           |
|             | <b>Laneratzea</b>                               |                  |   |   |   |   |           |
|             | Lanbiden apuntatuta                             |                  |   |   |   |   |           |
|             | Curriculuma prest                               |                  |   |   |   |   |           |
|             | Lan-elkarrizketa prestatu                       |                  |   |   |   |   |           |
|             | Familian lanean dagoen pertsona-kopurua handitu |                  |   |   |   |   |           |

Egunerokoari dagokionez, gazteleraz 'diario de campo' deitzen zaio. Tresna personal honetan, hezitzaileak egun bakoitzean dituen inzidentziak eta egunero egiten duen lana biltzen dira. Tresna praktikoa da eta gutxienez puntu hauek euki beharko lituzke: Familiaren eta esku-hartzearen oinarritzko datuak, data, landuko diren arloak, ekintza-mota eta esku-hartzearen garapena. Jarraian duzue adibide bat (ikus 4. Taula)

4.Taula. Egunerokoaren adibide bat

|                                  |  |
|----------------------------------|--|
| <b>FAMILIA</b>                   |  |
| <b>DATA</b>                      |  |
| <b>LANDUKO DIREN ARLOAK</b>      |  |
| <b>ZEIN EKINTZA EGINGO DIRA?</b> |  |
| <b>ESKU-HARTZEAREN GARAPENA</b>  |  |

Seihilabeteroko txosten soziohezitzaileari dagokionez, denbora zehatz batean, kasu honetan sei hilabete zehar garatu den esku-hartzearen prozesua islatzen du. Helburu nagusia izaten da, familiari buruzko gaur egungo informazioa eskaintzea, egin diren ekintzen berri ematea, erabili den metodología azaltzea, lortu diren helburuak erakustea eta ondorengo esku-hartze baterako proposamenak egitea. Jarraian duzue adibide bat (ikus 5. Taula)



5.Taula. Sei hilabeteko txosten soziohezitzailea

|  |  |
|--|--|
| <b>FAMILIA</b>   |  |
| <b>DATA</b>  |  |
| <b>PROFESIONALA</b>                                    |  |
| <b>HAURRA/HAURRAK DAUDEN PROGRAMA</b>                  |  |
| <b>ESPEDIENTEAREN IREKIERA ETA DATU GARRANTZITSUAK</b> |  |
| <b>LAN-ARLOAK ETA HELBURUAK</b>                        |  |
| <b>HELBURUEN LORPEN-MAILA ETA INZIDENTZIAK</b>         |  |
| <b>ESKU-HARTZEAREN BALORAZIOA</b>                      |  |
| <b>PROPOSAMENA</b>                                     |  |

## 1.2. Elkarteak, aldizkariak eta webgune garrantzitsuak

Familia-Orientazioarekin lotura duten zenbait elkarte, aldizkari eta webgune ikusiko ditugu jarraian (ikus 6. Taula).

### 6.Taula. Elkarteak, aldizkariak eta webguneak

|           |  |
|-----------|--|
| ELKARTEAK | Federación española de asociaciones de terapia familiar:<br><a href="https://www.feاتف.org/">https://www.feاتف.org/</a>  |
|           | Euskadi eta Nafarroako Famili Terapia Eskola (EVNTF)- Asociación Vasco-Navarra de Terapia Familiar, Mediación Familiar e Intervención sistémica: <a href="https://www.avntf-evntf.com/formacion-presencial/">https://www.avntf-evntf.com/formacion-presencial/</a>             |
|           | Asociación Andaluza de Terapia familiar y Sistemas Humanos:<br><a href="https://www.feاتف.org/asociaciones-3/asociacion-andaluza-de-terapia-familiar-y-sistemas-humanos/">https://www.feاتف.org/asociaciones-3/asociacion-andaluza-de-terapia-familiar-y-sistemas-humanos/</a> |
|           | Asociación Asturiana de Terapia Familiar:<br><a href="http://www.atfasturias.org/sobre-atfa/">http://www.atfasturias.org/sobre-atfa/</a>   |
|           | Asociación Aragonesa de Terapia Familiar <a href="http://www.aاتف.es/">http://www.aاتف.es/</a>   |
|           | Asociación de Orientación Familiar (PREF):<br><a href="http://www.pref.es/quienes-somos.html">http://www.pref.es/quienes-somos.html</a>  |
|           | Fert elkartea (Bartzelona). Ikusi zein liburu aholkatzen dituzten.<br><a href="http://www.fert.es/es/category/libros-aconsejados/">http://www.fert.es/es/category/libros-aconsejados/</a>  |

|             |  |
|-------------|--|
| ALDIZKARIAK | Mosaico aldizkaria (Federación Española de Asociaciones de Terapia Familiar-ena): <a href="https://www.feاتف.org/revista-mosaico/numeros-publicados/">https://www.feاتف.org/revista-mosaico/numeros-publicados/</a>  |
|             | Systemica aldizkaria (Asociación Andaluza de Terapia Familiar y Sistemas Humanos): <a href="https://www.aاتف.org/revista-systemica/catalogo/">https://www.aاتف.org/revista-systemica/catalogo/</a>                   |
|             | Revista de Ciencias y Orientación Familiar Universidad Pontificia de Salamanca-rena):<br><a href="https://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=580">https://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=580</a> |
|             | Familia: Revista de Educación Social (Res).<br><a href="http://www.eduso.net/res/articulo/tipos/348">http://www.eduso.net/res/articulo/tipos/348</a>   |
|             | Hirukide, Familia Ugarien elkartea. Aldizkaria du:<br><a href="https://hirukide.com/afrontamos-un-nuevo-ano-lleeno-de-retos-74/">https://hirukide.com/afrontamos-un-nuevo-ano-lleeno-de-retos-74/</a>                |

## 6. Taularen jarraipena. Elkartek, aldizkariak eta webguneak

|           |   |
|-----------|---|
| WEBGUNEAK | Familiaren behatokiaren argitarapenak:<br><a href="http://www.euskadi.eus/informacion/familiaren-behatokiaren-argitalpenak/web01-a2famil/eu/">http://www.euskadi.eus/informacion/familiaren-behatokiaren-argitalpenak/web01-a2famil/eu/</a>   |
|           | Gizarteratuz boletinean familiari buruzko albisteak aurkitu daitezke: <a href="https://www.siiis.net/es/publicaciones/gizarteratuz/">https://www.siiis.net/es/publicaciones/gizarteratuz/</a>   |
|           | Observatorio de la familia:<br><a href="https://www.mscbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/home.htm">https://www.mscbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/home.htm</a>  |
|           | Bilboko Udaleko Familia Orientazioa:<br><a href="http://bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&amp;cid=3000094032&amp;language=eu&amp;pageid=3000094032&amp;pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_ListadoServicios">http://bilbao.net/cs/Satellite?c=Page&amp;cid=3000094032&amp;language=eu&amp;pageid=3000094032&amp;pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_ListadoServicios</a> |
|           | Nafarroako Famili Orientabidea:<br><a href="http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/ficha/5858/Famili-orientabidea">http://www.navarra.es/home_eu/Servicios/ficha/5858/Famili-orientabidea</a>  |
|           | Aula familiar: <a href="https://aulafamiliar.org/">https://aulafamiliar.org/</a>  |

### 1.3. Erreferentzia bibliografikoak

- [1] 13/2008 Legea, Familiei Laguntzeko abenduaren 12koa [online]. [Kontsulta: 2019-03-20]. Eskuratua:  
<http://www.juslan.ejgv.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/12/0807144a.pdf>
- [2] RODRÍGUEZ, M.L. Conceptualización de la orientación educativa. In ROMERO, F. *Los Centros de orientación Familiar en España*. Madril: Ceac, 1994, 11-20.
- [3] CASTILLO, P. *Orientación pedagógica*. Gran Enciclopedia Rialp, XVII. Tomoa, 437-439. Madril: Rialp, 1981.
- [4] SÁNCHEZ, S. *Diccionario de Ciencias de la Educación*. Madril: Santillana, 1988.
- [5] ROMERO, F. Justificación de la existencia de los Centros de Orientación Familiar. Definición de conceptos. In ROMERO, F. *Los Centros de Orientación en España*. Universidad de las Palmas de Gran Canaria: Servicio de publicaciones, 1998, 19-27.
- [6] RÍOS, J.A. *Manual de Orientación y Terapia Familiar*. Madril: Instituto de las Ciencias del Hombre, 1994.
- [7] RÍOS, J.A. La orientación familiar: niveles, contenidos y técnicas. In QUINTANA-CABANAS, J.M. *Pedagogía Familiar*. Madril: Narcea, 1993, 151-157.
- [8] Registro Nacional de Psicoterapeutas [online]. [Kontsulta: 2019-06-04]. Eskuratua:  
<http://www.registronacionaldepsicoterapeutas.es/>
- [9] BISQUERRA, R. *Modelos de orientación e intervención psicopedagógica*. Barcelona: Praxis, 1998.
- [10] LLEDÓ, A. Modelos de orientación educativa: líneas básicas para la elaboración de un modelo integrado de la práctica orientadora. La importancia de un buen fundamento teórico para el desarrollo de una buena práctica. In LLEDÓ, A. *La orientación Educativa desde la práctica*. Sevilla: ECOEM, 2007, 109-126.
- [11] MÁIQUEZ, M. L. & CAPOTE, C.: Modelos y enfoques en intervención familiar [online]. *Intervención Psicosocial*, 2001, 10 (2) [online]. Eskuratua:  
<http://www.copmadrid.org/webcopm/publicaciones/social/76937.pdf>
- [12] CERVEL, M. : Orientación e intervención familiar [online]. *Educación y Futuro: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, 2005, 12 [Kontsulta: 2019-05-16] Eskuratua:  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2047075>
- [13] GRAÑERAS, M. & PARRAS, A. *Orientación educativa: fundamentos teóricos, modelos institucionales y nuevas perspectivas*. Cide: Madril, 2008.
- [14] ITUARTE, A. La participación en el modelo clínico de intervención social individualizado y familiar [online]. *Revista de Trabajo Social*, 1994, 133 Eskuratua:  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=498305>

[15] RODRIGO, M.J., MÁIQUEZ, M.L. & MARTÍN, J.C. Buenas prácticas profesionales para el apoyo de la parentalidad positiva [online]. Madrid: Federación Española de Municipios y Provincias, 2010 [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuratua: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/parentalidad\\_positiva/es\\_parentpo/adjuntos/12.%20BuenasPractParentalidadPositiva.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/parentalidad_positiva/es_parentpo/adjuntos/12.%20BuenasPractParentalidadPositiva.pdf)

[16] Aragoiko Gobernua [online]. [Kontsulta: 2019-05-16]. Eskuratua: [http://www.aragon.es/estaticos/GobiernoAragon/Organismos/InstitutoAragonesServiciosSociales/IASS\\_new/Documentos/infancia/INTERVENCION-FAMILIAR-2016-protocolo.pdf](http://www.aragon.es/estaticos/GobiernoAragon/Organismos/InstitutoAragonesServiciosSociales/IASS_new/Documentos/infancia/INTERVENCION-FAMILIAR-2016-protocolo.pdf)